

PSE-EE
PSOE



Hondarribia

Helburua: **Hondarribia 2020-2030**

Proposamenak 2020 - 2030





AGENDA 2030 PARA HONDARRIBIA


Pedro Sánchezen gobernuak 2030 Agendarekin bat egin zuen eta, horretarako, ministerio guztien artean landutako eta autonomia erkidegoen, tokiko entitateen eta gizarte zibilaren erakunde ordezkarien laguntzarekin osatutako ekintza-plan bat aurkeztu zen.

Hondarribiko sozialistok uste dugu beste urrats bat emateko eta 2030 Agenda gure herrialde-ereduan txertatzeko unea dela; baita udalerrietan ere, euskal gizartearen funtsezko osagai bat eta herritarrekin harreman zuzena edukitzeaz arduratzen diren instituzioak baitira.

Horregatik, Hondarribiko sozialistok jarraian zerrendatutako proposamen hauen helburua 2030 Agenda gure hiriaren premia eta gabeziara egokitzea da eta, aldi berean, ideia berriak botatzea, hondarribiarren artean eztabaidatu beharrekoak, datozen urteetan udalerrian egingo ditugun jardueren ardatza izan daitezten.

Herritarrek proposamen horiek osatzeko prozesuan parte hartu ahalko dute, gure helbide elektronikoaren bitartez: pse-ee@hondarribia.eus eta nodriozola@hondarribia.eus.

Gure proposamenak helburu nagusi hauek ditu:



AURKIBIDEA



HELBURUA 1

pobrezia deuseztatzea
forma guztietan

Pag. 4



HELBURUA 2

nekazaritza eta
merkataritza jasangarria


Pag. 6



HELBURUA 3

adin guztietako
pertonentzat bizimodu
osasuntsua eta ongizatea
bermatzea

Pag. 8



HELBURUA 4

hezkuntza inklusiboa,
bidezkoa eta kalitatezkoa
bermatzea

Pag. 10



HELBURUA 9

azpiegitura erresilienteak
eraikitzea, industrializazio
inklusibo nahiz jasangarria
bultzatzea eta berrikuntza
sustatzea

Pag. 24



HELBURUA 10

desberdinkeria murriztea


Pag. 26



HELBURUA 11

hirietako giza
kokaguneak inklusiboak,
seguruak, erresilienteak
eta jasangarriak izatea
lortzea

Pag. 28



HELBURUA 12

presazko neurriak
hartzea klima-aldaketari
eta haren eraginei aurre
egiteko

Pag. 38



HELBURUA 5

fronte guztietan lan egitea
genero-berdintasuna
lortzeko

Pag. 14



HELBURUA 6

uraren kudeaketa
jasangarria eta
guztientzako
saneamendua

Pag. 16



HELBURUA 7

arrazoizko prezioa duen
energia seguru eta
jasangarria izateko
aukera bermatzea

Pag. 18



HELBURUA 8

hazkunde ekonomiko
jarraitua, jasangarria eta
inklusiboa sustatzea

Pag. 20



HELBURUA 13

urpeko bizitza

Pag. 40



HELBURUA 14

ekosistema
lehortarretako bizitza

Pag. 42



HELBURUA 15

bakea, justizia eta
instituzio sendoak

Pag. 44



HELBURUA 16

helburuak lortzeko
aliantzak

Pag. 48



Pobrezia deuseztatzea forma guztietan



- 1.** Familientzako laguntzen eta ura eta energia ordaintzeko laguntzen araudia osatzea.

- 2.** Familientzako laguntzen erregelamendua hobetzea, gizarte-larrialdietarako laguntzek estaltzen ez dituzten laguntzen 20 estaltzeko.

- 3.** Udalen laguntzak jasotzen dituzten elkarteetarako jarduketa-protokolo bat ezartzea, 10 urtetik beherakoek kirol-klubetan dohainik parte har dezaten.

- 4.** Familia-errenta estandarizatuaren irizpidea aplikatzea udal-tasei.

- 5.** Gutxieneko errenta aplikatzea eta haren jarraipena egitea.

- 6.** Diru-sarrerak bermatzeko errenta aplikatzea eta haren jarraipena egitea; hobetzeko proposamenak.

- 7.** Bonu soziala eta kalteberatasun-irizpideak berrikustea.

- 8.** Pobrezia-egoerei erantzutea eta laguntza sozialen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea sustatuz, marjinazio sozialeko egoerak kroniko bihurtzea saihestu ahal izateko.



Hurbileko nekazaritza eta merkataritza jasangarria

2

9. Merkatu egonkor bat sustatzea.

10. Nekazaritza ekologikoa eta industria eraldatzailea bultzatzea.

11. Gazteentzako laborantza-lurzoruak bultzatzeko jarduketa-protokolo bat ezartzea, jabeen eta pertsona interesdunen artean akordioak sustatuz Udalaren laguntzarekin.

12. "Baratza" proiektua mantentzea eta handitzea.

13. Nekazaritza ekologikoa sustatzea, Hondarribiko baratzeen jabeen laguntzarekin.

14. Behemendirekin lan egitea Hondarribiko nekazaritza plan integrala aurrera eramateko, urertzeko nahiz mendiko zonaldeetan.

15. Lehiakortasuna hobetzea, nekazaritzaren sektorean berrikuntza eta ikerketa sustatuta.

16. Landa-ingurunearen eta hiriaren arteko komunikazioa erraztea.

17. Nekazaritza-produkzioa Nekazaritza Politika Erkide berriaren arauetara egokitzea, Hondarribiko nekazariarentzat EBren neurriak onuragarriak diren ala ez jakiteko ikerketa bat eginda.

18. Arrainen enpresa eraldatzaileak sustatzea.





**Adin guztietako
pertsonek
bizimodu osasuntsua
eta ongizatea
bermatzea**





19. Eskola-jazarpenerari buruzko protokolo bat formalizatzea udalerrian, hezkuntzaren eta segurtasunaren arloetako erakunde guztien parte-hartzearekin.

20. Osasun publikoa eta, batez ere, lehen mailako arreta indartzea. Anbulantzien zerbitzua zabaltzea eta baliabideak areagotzea.

21. Protokolo bat ezartzea prebentzio komunitarioko zerbitzuak gizarte-zerbitzuen eta gazteriaren arloekin duten harremana zehazteko.

22. Prebentzio komunitarioko zerbitzuaren jarduketa-parametroak aldatzea gizarte-zerbitzuen parte-hartzearekin, eta prebentzio-eremuak, kolektibo bakoitzak osasun-arloan jasotzen dituen laguntzak eta arreta pertsonalizatuak gizarte-zerbitzuen kartaren parametroen arabera zehaztea.

23. Arreta pertsonalizatuko zerbitzu bat finkatzea arazoak eta laguntza terapeutikoa jasotzeko beharra duten pertsonentzat.

24. Adineko pertsonei arreta emateko eredu bat zehaztea, "Etxean ondo" eta "Beti on" proiektuen ildo berean.



Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea

Bizitza osoan zehar ikasteko
aukerak sustatzea

25. Bekak (eskolako materialak, musika eskola, eskola-errefortzua, Uda Jolas).

26. Musika Eskolaren kudeaketa udalekotzea eta beka-sistema bat ezartzea.

27. Kultur Etxearen eta Itsas Etxearen funtzionamendua zehazteko araudi bat egitea.

28. Itsas Etxeko programazioa doakoa izatea langabeentzat eta baliabiderik gabeko familientzat.

29. Hirian "kultura bonuak" eta kontsumorako bonuak ezartzea.

30. Kirodegietako kuotak eta zenbait ikastaroren prezioak (igeriketa klaseenak, adibidez) berrikustea, familientzat nahiz norbanakoentzat.

31. Urteko programazio bat egitea Auditoriumerako, Hezkuntza eta Kultura sailekin eta Hondarribiko elkarteekin adostuta.



-
- 32.** Adingabekoak zaintzeko etxez etxeko laguntza-zerbitzua zabaltzea, kontziliazioa hobetzeko.
-
- 33.** Eskolako materiala tokiko dendetan erosteko laguntzak.
-
- 34.** Uda Jolas programaren oinarriak berrikustea, eskaera guztiak onar daitezzen eta inor ez dadin geratu programatik kanpo. Arrazoizko prezioak eta laguntzak ezartzea.
-
- 35.** Eskolaz kanpoko laguntzak ezartzea eta eskatzen dituzten kolektiboen artean aplikatuko direla bermatzea. Euskara ikastea sustatzea.
-
- 36.** Edozein adinetan ikasteko aukera-berdintasuna sustatzea eta hezkuntzarako sarbidean dauden desoreka eta desberdinkeria guztiak ezabatzea.
-



Fronte guztietan lan egitea genero-berdintasuna lortzeko

5



- 37.** Berdintasun teknikari bat kontratatzea.

- 38.** Puntu beltzen mapa berrikustea.

- 39.** Emakumeek parte hartzeko aisialdi-ekimenak eta elkarteak sustatzea.

- 40.** Hondarribiko emakumeen sare bat sortzea.

- 41.** Genero-indarkeria kasuetan jarduteko protokolo bat idaztea.

- 42.** Hondarribiko kale eta tokiei emakumeen izenak jartzeko ekimena bultzatzea.

- 43.** Hondarribiko emakumeen historia ezagutarazteko apustua indartzea.



**Uraren kudeaketa
jasangarria eta
guztientzako
saneamendua**

6



- 44.** Adostutako eremu guztietan (Guadalupe, Lurgorri...) zerbitzu publikoak martxan jartzea eta toki berriekin mapa bat ezartzea parkeetan eta igarolekuetan.
- 45.** Ibilgailuak kargatzeko eremu bat ezartzea eta autokarabanentzat garbiketa eta saneamendurako toki bat prestatzea.
- 46.** Ostalaritzan plastikozko botilen kontsumoa deuseztatzeko konpromisoa hartzea.
- 47.** Itsasertza garbitzeko ekimena babestea, urteko programekin.
- 48.** Txingudi badiako urak garbi egoteko protokolo bat bultzatzea.
- 49.** Jaizkibelgo erreken urak garbi egoteko protokolo bat bultzatzea.
- 50.** Saneamendu berria Arkolla inguruan.
- 51.** Santa Engrazia erreken harri-lubeta konpontzea, Zumardiaren parean.



**Arrazoizko prezioa
duen energia seguru
eta jasangarria
izateko aukera
bermatzea**

7

52. Eremu publikoetan eguzki-panelak jartzea.

53. Udalak erabiltzen duen energia garbia izatea, baita udal-ibilgailuetarako ere.

54. Galdarak aldatzeko dirulaguntzak. Efizientzia energetikoa lortzeko "Renove" plana.

55. Energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko proiektuei laguntzak emateko ordenantza.

56. Enpresei babesa ematea energia-iturri garbiak erabil ditzaten.

57. Telefonía zerbitzuek hirian duten estaldura eskasaren arazoa konpontzea.

58. Udal-laguntzak ematea amiantoak kentzeko.





**Hazkunde ekonomiko
jarraitua, inklusiboa eta
jasangarria, enplegu betea
eta produktiboa, eta lan
duina sustatzea**





- 59.** Udal-tasak denda txikien onurarako egokitzea.

- 60.** Aisia- eta kultura-proiektuak sustatzea.

- 61.** Blues Festibalari berriro ekitea.

- 62.** Saregileek lan-baldintza hobek izatea eta Itsasoko Gizarte Institutuaren baitan egotea.

- 63.** Turismoaren sektorea antolatzeko entitate bakar bat sortzea, jarraitu beharreko eredu jasagarria arautu eta zehaztuko duena.

- 64.** Hondarribiko dendariei laguntzak emateko araudi bat ezartzea, teknologia berrietara egoki daitezen.

- 65.** Lokalak alokatzea sustatzeko araudi bat prestatzea, enplegua sortzera bideratutako arau-esparru baten barruan.

- 66.** Tokiko planetan parte hartzea, lehenasuna emanez gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonei, gazteei, 45 urtetik gorako pertsonei, eta abar.





- 67.** Ostalaritzaren eta dendarien arteko aliantza sustatzea eta sektore horietako eskaintza indartzea, hiriaren erakargarri turistikoaren funtsezko ardatz gisa.
- 68.** Ekintzailtza eta merkataritza-eredu berrien sorkuntza babestea, eta hutsik dauden lokalak berriro ere merkataritzarako erabiltzea sustatzea.
- 69.** Itsasoko profesionalen prestakuntza eta tituluak lortzeko prozesua babestea, enpleguaren aldeko apustua eginda.
- 70.** Arrantza-kuotak kudeatzeko lankidetzak-hitzarmenak babestea, hegaluzeari eta antxoari lehentasuna emanez.
- 71.** Arrantzaren sektoreko enpresen titulartasuna belaunaldi batetik bestera pasatzeko neurriak ezartzea, etorkizuna bermatzeko tresna gisa.
- 72.** Sindikatuekin lan egitea hiriko zerbitzuen sektoreko langileen baldintzak hobetzeko.
- 73.** Zerbitzuen sektoreko enpresaburuen elkarteekin eta autonomoekin elkarlanean aritzea.



**Azpiegitura erresilienteak
eraikitzea, industrializazio
inklusibo nahiz jasangarria
bultzatzea eta berrikuntza
sustatzea**





74. Zaldunbordako proiektua baztertzea.
75. Hondarribiko eremuen industrializaziorako plan bat prestatzea.
76. Gazteei edo ekintzaile berriei lokalak alokairuan ematea.
77. Txiplauko industrialdea handitzea.
78. Itsasoaren eta arrantzaren sektoreko plan industrial berezia.
79. Gabarrari proiektu industrial gisa finkatzea.
80. "Zubieta proiektua" plan industrial estrategiko gisa bultzatzea.
81. Zabaletan eta Ibiztieta-Zaldunborda inguruan proiektu industrial bat egitea, berrikuntzan ardaztutako enpresak eta start-up teknologikoak erakartzeko.
82. Aisialdiko nautika industriari babesa ematea, enpleguak sortzeko aukera ematen duelako.



Desberdinkeria murriztea

10

83. Bakarrik bizi diren pertsoneri laguntzeko jarduketa-protokolo bat ezartzea, hirugarren sektorearen garapenarekin.

84. Etxerik gabeko pertsonak erroldatzea, helbide fiskal bat izan dezaten.

85. Bigarren eskualdaketa etxebizitzaren araudia aldatzea.

86. Gizarte-zerbitzuen zorroa finkatzea.

87. Gizarte-zerbitzuetako langile kopurua areagotzea arlo desberdinetan, eta Udalari zerbitzuak ematen dizkioten kontraten lan-baldintzak berrikustea.

88. Familia ugarietako ondasun higiezinaren gaineko zergari buruz onartutako araudiaren jarraipena egitea, ez baita behar bezala ulertzen aplikatzeko modua.

89. Pobrezia belaunaldiz belaunaldi betikotzea ekiditea.

90. Gazteen ahalduntzea sustatzeko programa bereziak eta esku-hartzeak eskaintzea.

91. Zentro zibikoak sortzea.

92. San Gabriel egoitzarako sarbideak egokitzea.

93. Hondarribiko hirugarren sektoreko boluntarioei babesa eta laguntzak ematea.

94. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoak optimizatzea, Gizarte-zerbitzuak finkatuz eta osasun zerbitzuekin elkartuz.

95. Bakearen eta elkarbizitzaren kultura sustatzea, giza eskubideen eta aniztasunaren errespetua oinarritzat hartuta.

96. Migratzaileekin lan egiten duten elkarteak indartzea eta aniztasunaren kudeaketa positiboa eta elkartasuna sustatzea goraka ari diren erronken aurrean (immigrazioa, errefuxiatuak).



**Hirietako giza kokaguneak
inklusiboak, seguruak,
erresilienteak eta
jasangarriak izatea lortzea**





- 97.** Udal ordenantza bat ezartzea Hondarribian alokatzeko laguntzak emateko.
-
- 98.** Erabilera anitzeko pabiloi bat eraikitzea.
-
- 99.** Mendelu berroneratzeko lehen fasea.
-
- 100.** Mugikortasunerako eta jasangarritasunerako laguntzen plan estrategikoa.
-
- 101.** Eserleku bat instalatzea Amuteko bidegorrian, zubien bidegurutzearen parean, baita komun bat ere inguruan.
-
- 102.** Proiektu bat egitea Muliaten Gizarte-zerbitzuen lokala kokatzeko.
-
- 103.** Kasino Zaharra mantentzea eta lehen ematen ziren zerbitzuekin indartzea; adibidez, ile-apainketa, podologia, eta abar. Eraikin hori hirugarren adinekoentzako lokal integral bat izan dadin birgaitzea, janari-zerbitzua barne.
-
- 104.** Hiriko "auzo" edo eremu berrietan zerbitzuak ezartzea; adibidez, hiriko autobusak, kutxazain automatikoak, posta-zerbitzua, udal-bulegoak, eta abar.
-
- 105.** Txakurrentzako eremuak eta zerbitzuak.
-

Horizonte kultural bat ezartzea

- 106.** Udal Artxiboko funtsak katalogatzeko eta digitalizatzeko plan zuzentzaile bat egitea.

- 107.** Liburutegia deszentralizatzea eta dokumentuak atzitzeko puntuak ezartzea erdigunetik urrunen dauden auzoetan.

- 108.** Alde Zaharrean eraikin bat erostea, areto kultural gisa erabiltzeko.

- 109.** Auditoriumean erakusketa-areto bat ezartzea eta araudia, egutegia, segurtasuna, eta abar zehaztea.

- 110.** Tokiko kultura eta kirola sustatzeko laguntzak.

- 111.** "Hondarribiko historia" ikerketa-beka berreskuratzea.

- 112.** Parrokian dagoen Etxenagusia margolariaren margolana zaharberritzea.

- 113.** Skateparkean "bainuontzi" bat sortzea.

- 114.** Kultura eta ondare kulturala dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea.

115. Ikus-entzunezko baliabideen bidez, Auditoriumean opera emanaldiak egitea.

116. Aisiarako eta kulturarako gune gehiago egotea hirian.

117. Hondarribia, gizadiaren ondare.

118. Hondarribian lan egiten duten edo erakusketak egiten dituzten artisau eta sortzaileen ekimenak babestea.

119. Ondare materiala eta immateriala babesteko jarduketa-plana.

120. Hiriko aisia- eta kultura-eskaintza areagotzea eta ordutegiak luzatzea (liburutegia, auditoriuma, kultur etxea, eta abar).

121. Harresiak antzerkiak egiteko toki eszeniko gisa erabiltzea.

122. Urtero kultura-programak egitea hiriko erakunde desberdinen parte-hartzearekin.

123. Hiriaren historian zehar garrantzia izan duten pertsonak ezagutaraztea.

Kokagune erresilienteak

124. Etxebizitza hutsak eta erortzear daudenak eraldatzeko araudia, bizitegi-erabilera emateko.

125. Santiago eta Donostia kaleen arteko desnibela igarotzeko igogailua.

126. Alde Zaharreko (Solbes inguruko) igogailuari lehentasuna ematea, zonaldeko plan berezia garatzeko zain egon gabe.

127. Hondatutako hiri-altzariak aldatzea. Obispo plazan eserlekuak eta luminariak kokatzea.

128. Lur gaineko azpiestazioak ezabatzea.

129. Hiriaren segurtasun-plana: herritarrentzat arriskutsuak diren puntuak ezabatzea.

130. Itsasargiko errepidearen ordezkoko bide bat egitearen bideragarritasuna aztertzea.

131. Kosta kalerako eta hura berrurbanizatzeko behin betiko plana.

132. Aire zabalean gimnasia egiteko tokiak gaitzea.

133. Satarkako haurren jolastokia estaltzea.

134. Zabu egokituak instalatzea eta jolastokiaren mapa bat egitea.

135. Hiriko seinaleak hizkuntza desberdinetan jartzea.

136. San Nikolas pasabidea konpontzea.

137. Euri-urak jasotzeko proiektua osatzea, itsasargiaren mendi-hegala sendotzea eta Iterlimeneko proiektua finkatzea.



Kokagune jasangarriak

- 138.** Hirigintza jasangarria eta energia berriztagarriak sustatzea (eraikin publiko autosufizienteak, bidegorriak, ibilgailu publiko hibridoak, eta abar).
- 139.** Tudelenea: Alokairuko 380 etxebizitza publiko eraikitzeko eta lurzorua erosteko plan berezi bat garatzea.
- 140.** Damarri: Alokairuko 86 etxebizitza.
- 141.** Presa I: Alokairuko 90 etxebizitza publiko.
- 142.** Karmeliten ingurua: Alokairuko 242 etxebizitza publiko.
- 143.** Presa II: Alokairuko 34 etxebizitza publiko.
- 144.** Basako: Alokairuko etxebizitza publikoak eraikitzea.
- 145.** Mugikortasun arazoak dituzten adineko pertsonen etxebizitzak birgaitzeko laguntzak.



Kokagune jasangarriak

146. Etxebizitza turistikoen araudia.

147. Etxebizitzen zatiketa sustatzea, lurzorua erabiltzeko beharrik gabe etxebizitza-parkea areagotzeko.

148. Eskapatxulo zerbitzugune gisa finkatzea.

149. Golfeko auzo-bideak irekitzea.

150. Lurpeko aparkalekua egitea Presa I eta II eta Damarri eremuan.

151. Txiplau handitzeko eta sarbideak hobetzeko proiektu integrala.

152. Familia bakoitzaren errentaren arabera alokairurako laguntzak zehazteko araudi bat ezartzea.

153. Etxebizitzarako sozietate publiko bat formalizatzea, Hondarribia Lantzen elkartearen estatutuak aldatuta. Jardunaren ardatz gisa, etxebizitzari emango zaio lehentasuna, Mendelu, Alde Zaharra eta Kosta kaleko esku-hartzea eta bestelako kontuak ere aintzat hartuta.

154. Merkatuan hutsik dauden etxebizitzak eskuratzea eta alokairu sozialera bideratzea, Bizigune eta Asap programak indartuz.

155. Etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema sendotzea.

156. Lurzoru eta eraikin publikoen inbentarioa egitea.

157. Udal-zerbitzuak kokatzeko lursail publikoak eta lokalak erostea.



Mugikortasuna

- 158.** Disuasioko aparkaleku bat egitea udalerrian jendetza dabilenerako.
-
- 159.** Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzea.
-
- 160.** Renfe-ren Gaintxurizketako kontua konpontzea.
-
- 161.** Hirian zehar ibiltzeko bizikletak alokatzeko puntu bat ezartzea.
-
- 162.** Topoa Hondarribira.
-
- 163.** Autobusen ordutegia luzatzea eta maiztasuna areagotzea, eta Lurgorrira geldialdi gehiago ezartzea.
-
- 164.** Semaforoen mapa egitea, Txiplau, Santa Engrazia, eta abar kontuan hartuta.
-
- 165.** Zuloaga kaleko supermerkatuaren zamalanerako gunea tokiz aldatzea. Kamioiak aparkatuta badaude, ez da ispilua ikusten.
-

166. Autobus turistikoak aparkatzeko tokia.

167. GI-638 errepidea bitan banatzea.

168. Karabanak aparkatzeko eremu bat gaitzea.

169. TAOa denboren arabera antolatzea.

170. Mugikortasunaren ordenantza martxan jartzea.

171. Alde Zaharrerako sarbideak eta mugikortasuna.

172. Hiri osoan zehar 30 km/h-ko abiadura muga aplikatzea.

173. Garraio publiko intermodala eta jasangarria sustatzea.

174. Hondarribiko eta Bidasoako bidegorrien behin betiko mapa finkatzea, eta bizikletaz ibiltzea segurua dela bermatzea.

175. Hiria oinezkoentzat atsegina izatea.

176. Hiri barruko garraioa martxan jartzea, ibilbide zirkularra egingo duten bi mikrobusekin.

177. Bidegurutzeetan behar diren ispiluen mapa egitea.



Presazko neurriak hartzea klima-al- daketari eta haren eraginei aurre egiteko

12

178. Mugikortasun jasangarria.

179. Mendiak eta lorategiak ingurumenari kalte egiten dioten prozedurarik erabili gabe garbitzeko plan estrategikoa. Enplegua sortzea.

180. Hiriko CO2 isuriak kontrolatzea, publikoak nahiz pribatuak, eta airearen kalitatea eta oxigenoa sortzeko ahalmena kontrolatzeko behatoki bat ezartzea.

181. Energia berriztagarriak erabiltzeagatik onura fiskalak ematea.





Urpeko bizitza

13



182. Arrantzarako sareak gordetzeko toki bat prestatzea.

183. Portuaren eta Bidasoako estuarioaren hondoa garbitzea, plastikoak eta bestelako elementu kutsatzaileak kentzeko.

184. Hondarribiko arrantzaren munduaren memoria lantzea; ahozko eta idatzizko memoria eta Hondarribiko flotari buruzko informazioa berreskuratzea.

185. Lurretik itsasorako isurketen kudeaketa jasangarria.

186. Txingudi badia itsaski-bilketako eremu gisa berreskuratzea.

187. Hondarribiko portua adimenduna eta jasangarria izatea.



Ekosistema lehortarretako bizitza



14



188. Lursailen jabeekin elkarlanean plan integral bat egitea eta paduretako eta Mendelu-Kosta inguruko baratzeen klaketa guztien mantentze-lanak berrikustea.

189. Kontsumoko arbitraje sistema bat eskaintzea kontsumitzaileei, irizpide administratiboak sinpleagoak izan daitezen.

190. Lurzoruaren erabilera jasangarria sustatzea.

191. Hezeguneak eta paseatzeko eremuak mantentzeko lanak egitea, aisia eta segurtasuna babestuz, toki atseginak izan daitezen.

192. Plaiaundi eta Jaizubia hezeguneak sendotzea.



Bakea, justizia eta instituzio sendoak

15

- 193.** Udala hobeto antolatzea; plaza gehiago eskaintzea eta kontratatzerakoan gardentasuna bermatzea (Hirigintza, Gizarte-zerbitzuak, Udaltzaingoa...).
- 194.** Udaleko arlo desberdinetan langile gehiago kontratatzea. Udaleko kategoriak eta kontraten lan-baldintzak berrikustea.
- 195.** Udaleko behin-behineko langileei kontratu finkoa egitea.
- 196.** Udaltzaingoa lan egiteko behar adina plaza eskaintzea.
- 197.** TAOraiko plaza berriak ateratzea, hizkuntza-irizpide proportzionalekin.
- 198.** SAC/BAZ zerbitzua hobetzea eta langile gehiago kontratatzea.
- 199.** Kontsumitzaileentzako arreta zerbitzua hobetzea, bulego batekin, eta bitartekotza-zerbitzu bat eskaintzea (FAZ).
- 200.** Gardentasun handiagoa eta osoko bilkurak ikusteko erraztasunak ematea (streaming bidez ematea).
- 201.** Udalaren app bat garatzea, herritarrekiko komunikazioa errazteko (akordioak, abisuak, gertaerak, izapideak...).
- 202.** Google Maps-eko datuak zuzentzeko eta eguneratzeko zerbitzua, Qualified Geo Developers programarekin. Aurrekontuetan onartutako proposamena.

- 203.** Wifi irekia hiri osoan zehar.
-
- 204.** Administrazio elektronikoa sustatzea eta garatzea.
-
- 205.** “Eten digitala” murrizteko laguntzak.
-
- 206.** Udalaren informazio-zerbitzu bat ezartzea, Whatsapp-eko hedapen-sare baten edo bestelako tresnen bidez.
-
- 207.** Aldizkari elebidun bat banatzea udalerriko informazioarekin.
-
- 208.** Udalak azpikontrataturako langileek 1.200 euro baino gutxiagoko soldata ez izatea bermatzeko protokoloak ezartzea.
-
- 209.** Herritarrek parte hartzeko eta Udalarekin harremanetan jartzeko postontzi bat jartzea.
-
- 210.** Kontsumitzaileen informaziorako udal-bulego bat (KIUB) ezartzea.
-
- 211.** Udal-gida bat sortzea Hondarribiko herritarrek eskura ditzaketen laguntza guztiekin, Udalarenak nahiz beste instituzio batzuenak.
-
- 212.** Gazteei zuzendutako lokal publikoak erabiltzeko protokoloak ezartzea eta lokal horien erabilera erraztea.
-
- 213.** Udalak larrialdi sozialetarako pisu hobeak izatea, eta gutxieneko ehuneko bat ezartzea.
-
- 214.** Izapide digitalak egiten laguntzeko bulego bat martxan jartzea.
-
- 215.** Kontratatzeko protokoloak.
-
- 216.** Kontserbaziorako hirigintza-sozietate sortzea, Jaizkibel urbanizazioaren inguruen erabilera eta mantentze-lanak kudeatuko dituenak.
-
- 217.** Alertak prebenitzeko eta herritarren autodefentsarako sistema bat arautzea.
-
- 218.** Gastu publikoaren efizientzia hobetzea.
-
- 219.** Administrazioa digitalizatzeko plana.
-
- 220.** Administrazio ireki baterako urratsak egitea.
-
- 221.** Herritarren karpeta.
-



222. Instituzioen agendak publikoki zabaltzea.

223. Kontsumoko arbitraje sistema bat eskaintzea kontsumitzaileei, prozedura administratiboak sinpleagoak izan daitezen.

224. Herritarrek parte hartzeko araudi bat sustatzea, gai publikoetan parte hartzera bultzatuko duena.

225. Hondarribiko memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten jarraitzea, eta bildutako informazioa herritarren eskura uztea.

226. Hondarribiko memoriari eskainitako toki bat gaitzea.

227. Memoria historikoari eskainitako toki bat gaitzea.



Helburuak lortzeko aliantzak



16



228. GKEen %1era heltzea, eta gastua urtero ezartzea.

229. Eskualde mailan hiri-garapenerako aliantzak egitea.

230. Mugaz haraindiko aliantzak sortzea, Euroeskualdea garatu ahal izateko.

231. Beste instituzio batzuekin aliantzak egitea, hiri-eredu jasangarri bat garatzea sustatzeko.

232. Hondarribiko askotariko eragileen artean elkarlana sustatzea, hiria helburu hauen baitan garatzea ahalbidetzeko.
